

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

1858

AGINDUA, 2022ko apirilaren 12koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez bizialdi osoko ikaskuntzari lotutako jarduerak egiteko laguntzak arautzen dituen uztailaren 23ko 118/2019 Dekretuan aurreikusitako laguntzen 2022rako deialdia egiten baita.

Bizialdi osoko ikaskuntzari lotutako jarduerak egiteko laguntzak arautzen dituen uztailaren 23ko 118/2019 Dekretuan, ezagutzaren edozein eremutan bizialdi osoko ikaskuntzarekin lotutako ikaskuntza-ekintzak sustatzeko laguntzak arautu dira.

Era berean, Bizialdi osoko ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legearen 4. artikuluan aurreikusitako xedekak betetzen lagunduko dute agindu honetako laguntzek.

Bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoak ekitaldi ekonomiko bakoitzean indarrean izango dituen aurrekontu orokorrak zehaztuta daudenean, programei dirulaguntzak eman edo ez erabakitzeko arauak eguneratu, berrikusi edo, hala badagokio, ezarri beharko dira. Zehaztu gabeko indarraldia eman zitzaien dirulaguntzen kasuan, dagokion deialdia egin beharko da, halaxe xedatu baita Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan.

Kontuan izanik diruz lagun daitezkeen jardueretatik indarraldi zehaztugabea nahiz aldi baterako indarraldia izango dutenak arautu direla uztailaren 23ko 118/2019 Dekretuan, eta dekretu horretako 10.2 artikuluan xedatutakoa betetze aldera, hots, publizitatearen printzipioa betetze aldera, egoki den deialdia egingo du Hezkuntza Sailak. Hortaz, agindu hau eman eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharra dago.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da bizialdi osoko ikaskuntzari lotutako jarduerak egiteko laguntzak arautzen dituen uztailaren 23ko 118/2019 Dekretuan aurreikusitako laguntzak 2022rako deitzea.

2. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Diruz laguntzekoak diren jarduerak hasi beharko dira eskabidea aurkeztu den urte naturalean, eta garatu ahal izango dira hurrengo ekitaldiko uztailaren 31ra arte.

3. artikulua.– Tramitazio elektronikoa.

1.– Erakunde eskatzaileak behartuta daude laguntza-deialdi honek eskatzen dituen izapide guztiak telematikoki egitera eta eskatutako dokumentazioa aurkeztera, horretarako eskuragarri dituzten txantiloioak erabiliz.

Eskabide-inprimakira sartzeko erabiltzen den administrazio-prozeduraren informazio-fitxa (hor daude eskuragarri izapidetzea egiteko jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta ereduak) helbide honetan eskura daiteke:

www.euskadi.eus/servicios/0051210

2.– Eskabidearen ondorengo izapideak, bide elektronikoz, jakinarazpenak eta justifikazioak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira:

<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa identifikazioarako eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak honako helbide honetan eskura daitezke:

<https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

Elektronikoki ere izapidetu ahal izango da, ordezkari baten bidez. Horretarako, ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ahalordetzeen erregistro elektronikoa inskribatu ahal izango da, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/ordezkariek>

4.– Erakunde eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute eskaera eta horri atxikitako dokumentazioa. Halaber, erakunde eskatzaileak aukeratzen duen hizkuntza erabili ahal izango da prozedura osoan, euskararen erabilera arautzen duen 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluek xedatzen duten moduan.

Eskabideak aurkeztuz gero, esan nahi du deialdi honetako oinarriak definitzen dituzten baldintzak espresuki eta formalki onartu direla.

4. artikulua.– Ebaluazio-irizpideak.

118/2019 Dekretuaren 14. artikuluan xedatutako irizpideak betez ebaluatuko dira eskaerak, II., III. eta IV. eranskinetako eskemak oinarri hartuta.

Horretarako, uztailaren 23ko 118/2019 Dekretuaren 11. artikuluan xedatzen den bezala, dirulaguntzaren eskabidearekin batera, besteak beste, proiektuan egin beharreko ekintza guztiak deskribatzen dituen memoria aurkeztu beharko da. Memoria horrek V., VI. eta VII. eranskinetan jarduera-mota bakoitzerako definitutako formulario normalizatuan finkatutako eskemari jarraitu beharko dio. Formulario horiek [euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) egoitza elektronikotik jaitsi daitezke, pdf formatu betegarrian.

5. artikulua.– Finantzaketa.

1.– 930.000,00 euro erabiliko dira deialdi hau finantzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituen arabera.

2.– Hauek izango dira jarduera-mota bakoitzaren gehieneko zenbateko erabilgarriak:

a) Prestakuntza-jarduera espezifikoak: 235.000,00 euro.

b) Ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuak: 595.000,00 euro.

c) Esperimentazio-proiektuak: 100.000,00 euro.

6. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen gastuak.

Deialdi honen funtsen kargura honako gastu hauek finantzatu ahal izango dira: proiektuan zuzenean parte hartzen duten eta diruz lagundutako jarduera garatzeko ezinbestekoak diren langileen gastuak; eta diruz lagundutako jarduera garatzearen ondorioz zuzenean sortutako funtzionamendu-gastuak.

Funtzionamendu arrunteko gastuak (besteak beste, proiektuaren Zuzendaritza-, koordinazio-, kudeaketa- eta administrazio-gastuak; komunikazio-gastuak; ura; argia; eta lokalen alokairua edo amortizazioa) finantza daitezkeen gastu guztien % 10 izan daitezke, gehienez ere.

7. artikulua.– Laguntzaren zenbatekoa.

Hau izango da jarduera-mota bakoitzaren laguntzaren gehieneko zenbatekoa:

a) Prestakuntza-jarduera espezifikoak: plaza eta prestakuntza-ordu bakoitzeko, 7 euro gehienez; eta 18.000 euro gehienez, jarduera bakoitzeko.

b) Ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuak: gehienez ere 35.000 euro, 12 hileko zerbitzuko eta bitartekaritza-zerbitzuari egozten zaion eta lanaldi osoz arituko den bitartekari bakoitzeko. Bitartekaritza-zerbitzua gutxienez 100.000 biztanleko udalerrri batean edo gutxienez 60.000 biztanleko eskualde batean ematen bada, lanaldi osoz arituko den bitartekari bat egotziko da. Bitartekaritza-zerbitzua 12 hileko epean baino denbora gutxiagoan egiten bada, gehieneko zenbatekoa hainbanatu egingo da.

c) Esperimentazio-proiektuak: 20.000 euro gehienez, jarduera bakoitzeko.

8. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa eta ordainketa.

1.– 118/2019 Dekretuaren 18.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, aurreikusitako jarduerak egiteko emandako dirulaguntzak bi zatitan ordainduko dira:

Lehenengo ordainketa, erakunde onuradunak dirulaguntza onartzen duenean, emandako dirulaguntza osoaren % 45.

Bigarren ordainketa, gainerako % 55ekoa, 118/2019 Dekretuaren 18.1.b) artikuluan aipatutako dokumentazioa jaso ondoren. Dokumentazio horrek VIII., IX. eta X. eranskinetan jarduera-mota bakoitzerako zehaztutako formulario normalizatuan (azken memoria) eta XI. eranskinean (memoria ekonomikoa) finkatutako eskemari jarraitu beharko dio. Inprimaki horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa daude eskuragarri, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/servicios/0051210>

Dokumentazioa aurkezteko gehieneko epea bi hilabetekoa da, ebazpenean jasotako ekintza guztiak amaitzen diren egunetik aurrera.

Konturako ordainketa egin ahal izango da, bigarren ordainketaren % 50ekoa, 118/2019 Dekretuaren 18.2 artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

2.– Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde onuradunak Eusko Jaurlaritzaren dagokion datu-basean agertu beharko du.

Alta emateko edo hirugarren interesdunaren datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzak emandako hirugarrenen erregistro telematikora jo beharko da, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

9. artikulua.– Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa.

Zure datu pertsonalak tratatu egingo dira eta «Entitate laguntzaileei eta lanbide heziketako ikas-tetxeei emandako dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira.

Arduraduna: Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Xedea: dirulaguntzetarako eskabideak tramitatzea, parte-hartzaileak edota interesdunak identifikatuz. Entitate laguntzaileei emandako dirulaguntzak.

Legitimazioa:

a) Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

b) 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

c) 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.

Hartzaileak:

a) Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

b) Ekonomia eta Ogasun Saila.

Eskubideak: eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsulta deza-kezu gure webgunean.

Araudia:

a) Datuak Babesteko Araudi Orokorra.

b) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze-errekurtsua aurkez dakiok Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baitute Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluek. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez daiteke, zuzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hila- beteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baitute Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.a) eta 46.1 artikuluek.

2022ko maiatzaren 2a, astelehena

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 12a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

I. ERANSKINA

BIZIALDI OSOKO IKASKUNTZARI LOTUTAKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZAK
INSTRUKZIO-ORGANORA BIDERATUTA:
TEKNOLOGIAREN ETA IKASKUNTZA AURRERATUEN ZUZENDARITZA

Datu pertsonalak**Titularra**

Identifikazio-dokumentua* _____ Zenbakia* _____

Erakundearen izena* _____

Ordezkaria

Identifikazio-dokumentua * _____ Zenbakia * _____

Izena * _____

Lehen abizena _____ Bigarren abizena _____

Sexua:

 Gizonezkoa Emakumezkoa

Erakunde eskatzailearen datu fiskalak dauden lurraldea/probintzia *

Jakinarazpen eta komunikazio kanala * Elektronikoa:**Abisuak jasotzeko datuak**

Helbide elektronikoa: _____

Mugikorra: _____

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuetarako hizkuntza * Euskara Gaztelania

Erantzukizunpeko adierazpenak

Honako hau deklaritzen dut erakunde eskatzaileari buruz:

Ez dauka dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzea eragozten dion zigor penal edo administratiborik.

Ez dago dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duten lege-debekuen eraginpean, eta, zehazki, beren-beregi sexu-diskriminazioagatiko lege-debekuen eraginpean.

Bete egiten ditu Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legean (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsitako testu bategina) eta, oro har, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako betekizunak, hau da, dirulaguntzak jasotzeko indarrean dauden araudian ezarritakoak.

Egunean ditu indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak, eta ordainduta dauzka Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta dirulaguntzen alorreko itzulketa-betebeharrak.

Ez du egingo diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 50etik gorako azpikontrataziorik.

Helburu bererako beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzak, laguntzak, dirua edo baliabideak eskatuz gero eta, hala badagokio, eskuratuz gero, horren berri ematea.

Erakunde eskatzaileak adierazten du egiazkoak direla eskabidean eta harekin batera aurkeztutako dokumentuetan agertzen diren datuak, eta betetzen dituela dirulaguntza jasotzeko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak. Entitateak hori egiaztatzen duen dokumentazioa dauka eta, eskatzen zaionean, Administrazioaren esku jarriko du dokumentazio hori.

Halaber, erakundeak konpromisoa hartzen du aurreko betebeharrak betetzeko, aipatutako aitorten horri dagokion aldi osoan.

Konpromisoa hartzen du, ebazpenean kontuan hartutako edozein egoera aldatuz gero, aldaketa hori jakinarazteko.

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa

Zure datu pertsonalak tratatu egingo dira eta "Entitate laguntzaileei eta lanbide heziketako ikastetxeei emandako dirulaguntzak" izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira.

- Arduraduna: Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.
- Xedea: Dirulaguntzetarako eskabideak tramitatzea, parte-hartzaileak edota interesdunak identifikatuz. Entitate laguntzaileei emandako dirulaguntzak.
- Legitimazioa:
 - o Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.
 - o 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Orokorra.
 - o 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.

- Hartzaileak:
 - o Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.
 - o Ekonomia eta Ogasun Saila.
- Eskubideak: eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.
- Informazio gehigarria:
 - o Datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/039900-capa2-eu.shtml>.
- Araudia:
 - o Datuak Babesteko Araudi Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).
 - o 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673>).

Aurkeztutako dokumentuak

Dokumentu-mota	Izena

Lehenago aurkeztutako dokumentuak

Dokumentu-mota	Izena	Dokumentua hartu zuen organoa	Emandako eguna

Organo izapidegileak ofizioz egiaztatzeak

Araudi aplikagarriarekin bat etorritik, prozedura honen organo izapidegileak datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskudunean:

- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorreko (GSDO) betebeharrak egunean izatearen datuak.
- Zerga-betebeharrak egunean izatearen datuak (EAEko foru-aldundiak edo Estatuko Zerga Agentzia).

EZ DUT ONARTZEN prozedura honen organo izapidegileak ofizioz egiaztapenak egitea (39/2015 Legearen 28. artikulua).

Oharra: onarpenik eman ezean, prozeduran eskatutako agiri guztiak aurkeztu beharko dira.

Sinadura elektronikoa:

II. ERANSKINA

PROIEKTU-MOTA: PRESTAKUNTZA-JARDUERA ESPEZIFIKOAK

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

a) Honako hauen zehaztasun-maila: prestakuntza-jarduera zuzentzen zaien pertsona-taldeen ezaugarriena; talde horren kuantifikazioarena eta ase nahi diren prestakuntza-beharrizanena; bete nahi diren helburuena – onuradunek gaitasunak eskuratzeari, haien kualifikazioa hobetzeari eta haien prestakuntza-ibilbidean aurreratzeko jarraitzeari dagokionez– eta xedeen lorpena ebaluatzea ahalbidetzen duten adierazleena. (25 puntu, gehienez).

- Hartzaileren kolektiboaren ezaugarriak eta kuantifikazioa (5 puntu, gehienez).
- Bigarren Hezkuntzako ikasketa-titulua ez duten 30 urtetik gorako pertsonen edo 55 urtetik gorako pertsonen zuzenduta dago prestakuntza-jarduera (3 puntu).
- Jarduera zuzentzen zaien pertsonen zerrenda aurkeztu da, datuak sexuaren eta adinaren arabera bereizita (2 puntu).
Prestakuntza-jardueren hartzaileren adina: amaierako memorian ikusten bada hasierako eskabidean adierazitakoaren % 20tik gorako desbideratzea dagoela, eskaeraren balorazioa berrikusiko da..
- Hartzaileren prestakuntza-beharrak, jardueraren bidez bete nahi direnak (10 puntu, gehienez).
- Hobekuntza-prozesuetan parte hartzeko eta norberaren lanbide-kualifikazioa eguneratzeko beharrezkoak diren oinarrizko kompetentziak bete nahi dira: oinarrizko gaitasun instrumentalak, gaitasun digitalak, gaitasun pertsonal eta sozialak, eta ikasten ikastea (10 puntu, gehienez).
- Bete nahi diren prestakuntza-beharrek honako hauekin dute lotura: autonomia pertsonala hobetzeko gaitasunarekin (oinarrizko gaitasun instrumentalak, gaitasun digitalak, gaitasun pertsonal eta sozialak); parte-hartze soziala eta borondatezko lana sustatzearekin 55 urte baino gehiagoko pertsonen artean, bai eta pertsona horiek gertuko beste herri-proiektu batzuetan parte hartzea bultzatzearekin ere (10 puntu, gehienez).
- Gaitasunak lantzearen eta kualifikazioak hobetzearen alorreko helburuak (10 puntu, gehienez).
- Proiektuaren helburuek lotura dute lanbide-kualifikazioa hobetzeko eta eguneratzeko hobekuntza-prozesuetan parte hartzeko oinarrizko gaitasunak lortzearekin (30 urtetik gorako pertsonak) edo autonomia pertsonala eta parte-hartze soziala hobetzeko trebakuntzarekin (55 urtetik gorakoak); eta gaitasunetan zer aurrerakuntza espero diren zehaztu da (5 puntu).
- Helburuak bat datoz hartzaileren kualifikazioarekin eta prestakuntza-beharrekin (2 puntu).
- Helburuen lorpena ebaluatzeko adierazle koherenteak eta baliozkoak proposatzen dira (3 puntu)
- GUZTIZKO PARTZIALA**

b) Erakunde eskatzailearen gaitasun teknikoa helduen prestakuntzaren alorrean (bereziki kualifikazio txikiko helduen prestakuntzan) eta erakundearen gaitasuna prestakuntza-jarduerak (euskaraz nahiz gaztelaniaz) garatu ahal izateko. Gaitasun teknikoa oinarrituko da garatu nahi den jarduera egiteko erabilitako baliabide materialen kalitatean eta esperientzian zein prestakuntzan, bai eta jarduera garatzeko erabiliko diren giza baliabideetan ere (25 puntu, gehienez).

- 50 orduetik gorako ikastaro bakoitzeko edo
 - 20 orduetik gorako ikastaro-talde bakoitzeko, baldin eta guztira 60 ordu badira
- Betiere aurreko a) atalean deskribatutako ezaugarriak betetzen badituzte eta proposatutako jarduera emango duen profesionalak azken 3 urteetan helduei eman badizkie (0,20, gehienez 10 puntu, edo 0,50 puntu, gehienez 10 puntu, kualifikazio txikiko 30 urtetik gorako pertsonen kasuan, betiere frogagiriak aurkezten badira.)
- Proposatutako jarduera emango duen edo duten profesional bakoitzeko, betiere Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 maila egiaztatzen badu edo badute, eta uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuarekin bat etorritik, zeinaren bitartez aldatu egiten baita euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzeko eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailekin parekatzeko dekretua (puntu 1 emango da profesional bakoitzeko, 4 puntura heldu arte, betiere frogagiriak aurkezten badira).
- Proposatutako jarduera emango duen edo duten profesionalak jasotako ikastaro bakoitzeko, baldin eta ikastaro horiek zuzenean lotuta badaude emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin, eta gutxienez 20 orduko iraupena badute (0,20 puntutik 3 puntura, gehienez, betiere frogagiriak aurkezten badira). 150 ordu baino gehiagoko ikastaroei 3 puntu emango zaizkie.
- Baliabide materialak egokiak eta nahikoak dira jarduera garatzeko (5 puntu).
- Ikasmateriala eta publizitatean zein ekintza osoan erabilitako materiala hizkuntza ez-sexista erabiliz daude idatzita, eta irudiek eta testuak genero-rolen haustura bultzatzen dute (3 puntu, betiere frogagiriak aurkezten badira).

GUZTIZKO PARTZIALA

c) Garatuko den prestakuntza-jardueraren zehaztapena: edukiak, metodologia, ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak, irauten duen ordu-kopurua eta aurreikusitako programazioa. Proposatutako adierazleko koherentzia eta balioa aurreko a) atalean esandako helburu eta prestakuntza beharrekin alderatuta (25 puntu, gehienez).

- Edukiak (8 puntu)
- Aurreikusitako programazioa eta zuzeneko lotura duten edukiak (8 puntu):
 - 55 urtetik gorako pertsonen autonomia pertsonala eta parte-hartze soziala hobetzeko gaikuntza, edo
 - Lanbide-kualifikazioa eguneratzeko eta hobetzeko prozesuetan txertatzeko behar diren oinarritako gaitasunak eskuratzea.
- Metodologia (7 puntu)
- Proiektua zehatza da, haren arrazoiak eman dira, eta bat dator jardueraren edukiekin, xedeekin eta hartzaiarekin (7 puntu).
- Ikaskuntza-emaitzak eta ebaluazio-irizpideak (6 puntu, gehienez).
- Espero diren ikaskuntza-emaitzak lortu direla bermatzea ahalbidetzen duten ebaluazio-irizpideak definitzen dira (6 puntu)
- Proiektua garatzeko egutegi zehatza, iraupen-orduak eta aurreikusitako programazioa (4 puntu).
- Zehatza da, eta bat dator edukiekin nahiz helburuekin (4 puntu).

GUZTIZKO PARTZIALA

GUZTIZKOA (75 PUNTU, GEHIENEZ)

III. ERANSKINA

PROIEKTU-MOTA: IKASKUNTZAKO BITARTEKARITZA-ZERBITZUAK

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

a) Erakunde eskatzaileak duen gaitasun teknikoa, ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuak edo prestakuntzarako orientabide zerbitzuak emateko eta zerbitzua euskaraz zein gaztelaniaz garatzeko (25 puntu, gehienez).

Gaitasun teknikoa esperientzian oinarrituko da; hain zuzen ere, erakunde eskatzaileak ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuaren esku jarritako pertsonen bizi-aldian osoko prestakuntzarako informazioaren eta aholkularitzaren alorrean egiazta dezaketen esperientzian.

Genero-joerarik gabeko trebakuntzarako ikaskuntzaren edo informazioaren arloko bitartekaritzaren eta aholkularitzaren esparruan izandako esperientzia-urte gehigarri bakoitzeko (bigarren esperientzia-urte aurrera), betiere eskatutako bitartekaritza-zerbitzuaren esku erakundeak jarriko dituen bitartekariak egiaztatuta (10 puntu, gehienez; betiere frogagiriak aurkezten badira).

- Esperientzia gehigarriko urte bakoitza: puntu bat urte bakoitzeko (5 puntu, gehienez).
- Bitartekaritza-zerbitzua garatu nahi den leku berean, esperientzia gehigarriko urte bakoitza: puntu bat urte bakoitzeko (5 puntu, gehienez).

Balorazio hau hainbanatu egingo da zerbitzua emango duten bitartekari-kopuruaren arabera, hala badagokio.

Bitartekariak azken 3 urteetan emandako lanbide-gaitasunen ebaluazioarekin eta egiaztapenarekin zuzenean lotutako informazio-jardunaldi bakoitzeko (0,5, gehienez 2 puntu, betiere frogagiriak aurkezten badira).

Balorazio hau zerbitzua ematen duten bitartekarien kopuruaren arabera hainbanatuko da, hala badagokio..

Eskatutako bitartekaritza-zerbitzuaren esku egongo den/diren bitartekariak/ek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 maila egiaztatzen badu/badute, betiere uztailearen 4ko 187/2017 Dekretuarekin bat etorriz, zeinaren bitartez aldatu egiten baita euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzeko eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailekin parekatzeko dekretua (5 puntu emango dira, betiere frogagiriak aurkezten badira).

Eskatutako bitartekaritza-zerbitzuaren esku dauden bitartekariak jasotako ikastaro bakoitzeko, baldin eta ikastaro horiek zuzenean lotuta badaude emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin, eta gutxienez 20 orduko iraupena badute (puntu 1 ikastaro bakoitzeko, 4 puntu gehienez, betiere frogagiriak aurkezten badira). 150 ordu baino gehiagoko ikastaroei 4 puntu emango zaizkie.

Balorazio hau hainbanatu egingo da zerbitzua emango duten bitartekarien arabera, hala badagokio.

Proiektuaren garapenerako jarriko diren baliabide teknikoaren deskribapen zehatza (gelak, ekipamenduak, softwarea...) eta tresnena (hizkuntza ez sexistan idatzitako testuak, rol-hausturari laguntzen dioten irudiak...) (4 puntu, betiere frogagiriak aurkezten badira).

GUZTIZKO PARTZIALA

b) Bere eremurako jarduketa-plan bat planifikatu eta garatzea, bizialdi osoko ikaskuntza sustatzeko, lortu nahi diren helburuak argi ezarriz eta haien lorpenaren ebaluazioa egitea ahalbidetzen duten adierazleekin (gehienez 20 puntu)

- Eremurako jarduera-plan bat planifikatzen eta garatzen du, herritar guztiek prestakuntza eskuragarri izan dezaten. Jarduera-planaren deskribapen zehatza aurkezten da, bai eta lortu nahi diren helburuak eta helburu horien lorpenaren ebaluazio-prozedura ere (7 puntu).
- Erakundeekin, prestakuntza-emaileekin eta eremuko bestelako eragileekin lan proaktiboa egitea. Garatu nahi den lan proaktiboaren deskribapen zehatza, bai eta lortu nahi diren helburuak eta horien lorpenaren ebaluazio prozedura ere (7 puntu).
- Etengabeko ikaskuntza-jarduera zehatzak sustatu, diseinatu eta garatuko dira. Gauzatuko diren jardueri, bete nahi diren helburuei, eta helburuen betetze-maila ebaluatzeko prozedurari buruzko azalpen zehatzak eman dira (6 puntu).
- GUZTIZKO PARTZIALA**

c) Eman nahi den bitartekaritza-zerbitzuaren edukiaren zehaztapen maila: zenbat pertsonari eman nahi dioten arreta; pertsona horien tipologia; arreta eman zaien pertsonen prestakuntzaren bilakaeraren jarraipena eta sustapena (gehienez 30 puntu).

- Zenbat pertsonari (sexuaren arabera berezita) emango zaizkien aurrez aurreko informazioa eta aholkuak, bai eta haien prestakuntza-ibilbidea bultzatu ere (4 puntu, gehienez).
- ≥ 1.000 pertsona (4 puntu)
- $500 \leq \text{pertsona} < 1.000$ (2 puntu)
- $300 \leq \text{pertsona} < 500$ (1 puntu)
- Zerbitzua emango zaien pertsonen tipologia eta horren justifikazioa (emakumezkoak eta gizonezkoak) (4 puntu, gehienez)
- Zerbitzua emango zaien biztanleen $\geq 60k$ kualifikazio baxua edo prestakuntza-maila baxua dute (4 puntu)
- Zerbitzua emango zaien biztanleen $40 \leq x < 60k$ kualifikazio baxua edo prestakuntza-maila baxua dute (2 puntu).
- Pertsona bakoitzaren prestakuntza-ibilbidearen jarraipena egin eta bultzatzea (10 puntu, gehienez).
- Pertsona bakoitzari, gizartean esleitutako genero-rolak kontuan hartuta, aholkua emateko prozesua banakakoa eta zehatua da: banakako helburuak zehaztuko dira, eta laguntza banaka eman eta haien jarraipena ere banaka egingo da (7 puntu).
- Emandako banakako zerbitzuaren ebaluazioa egingo da: ebaluazio-tresnak zehaztu dira (3 puntu).
- Bitartekaritza-zerbitzuko helburuak eta lan-metodologia zehaztu dira (12 puntu, gehienez).
- Bitartekaritza-zerbitzuaren helburuak zehatzak dira eta bete, neur, nahiz ebalua daitezke (4 puntu).
- Helburuen betetze-maila ebaluatzeko adierazle zehatzak eman dira (4 puntu).
- Aurreikusitako metodologia bat dator zerbitzuaren helburuekin eta zerbitzua hartuko duten herritarren tipologiarekin. Horrez gain, metodologia horren azalpen zehatua eman da (3 puntu).
- Proiektua garatzeko egutegi zehatza (1 puntu).
- GUZTIZKO PARTZIALA**
- GUZTIRA (75 PUNTU, GEHIENEZ)**

IV. ERANSKINA

PROIEKTU-MOTA: ESPERIMENTAZIO-PROIEKTUAK

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

a) **Proiektuaren zehaztasun maila, honako hauek modu zehatzean adierazita: egin nahi den esperimentazio-plana; lortu nahi diren helburuak; ebaluatzeko adierazleak; egutegia; metodologia; zer kolektiborengan izango duen eragina, kolektibo horrek edo horiek zenbat eta nolakoak diren; eragingo zaien pertsonak, ustez, zer onura jasoko dituzten; proposatutako helburuak lortu diren ala ez ebaluatzea; eta erakunde eskatzaileak proiektua ulertzeko garrantzitsutzat jotzen duen beste edozein informazio (45 puntu, gehienez).**

Gai hauetako bati buruzkoa da esperimentazio-plana (30 puntu):

- Bereziki kualifikazio txikiko pertsonen zuzendutako eduki irekiko ikaskuntza-gaiak lantzea,
- Prestakuntza-ikaskuntzako metodologia berriak,
- Ezagutzaren belaunaldi arteko transferentzia,

Helburuak zehaztasun handiz deskribatu dira; eta neurtu nahiz ebaluatu daitezke (3 puntu).

Helburuekin bat datoz ezarritako ebaluazio-adierazleak (2 puntu).

Proiektua garatzeko egutegia zehatza da (2 puntu).

Zehaztasun handiz deskribatu da metodologia; eta haren arrazoiak azaldu dira (2 puntu).

Proiektua zuzendutako taldearen azalpen zehatza eman da: pertsona-kopurua eta tipologia (2 puntu).

Proiektuak, emakumezko eta gizonezko artean egon daitezkeen diferentziak adieraziz, taldeari ekarriko dizkion onurak zehaztasun handiz deskribatu dira eta egiaztagarriak dira (2 puntu).

Helburuen betetze-maila neurtzeko prozeduraren eta tresnen deskribapen zehatza egin da (2 puntu).

GUZTIZKO PARTZIALA

b) **Erakunde eskatzaileak proiektua egiteko dituen baliabide teknikoak eta giza-baliabideak, proiektuaren egileek eta hura egingo dutenek zer kualifikazio eta esperientzia duten adieraziz (30 puntu, gehienez).**

Proiektua zuzenean garatuko duten pertsonen parte hartu izana irakaskuntza- eta ikaskuntza-metodologiei buruzko, ikaskuntza sustatzeko metodologiei buruzko, eta prestakuntza-metodologiei buruzko esperimentazio- edo ikerketa-proiektuetan (puntu 1 proiektu bakoitzeko; 10 puntu gehienez; betiere frogagiriak aurkezten badira).

Eskatutako proiektuarekin lotura zuzena duen profesional bakoitzeko, betiere Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 maila egiaztatzen badu edo badute, eta uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuarekin bat etorritik, zeinaren bitartez aldatu egiten baita euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzeko eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailekin parekatzeko dekretua (2,5 puntu emango da, 5 puntu arte gehienez, betiere frogagiriak aurkezten badira).

Proiektua garatzeaz zuzenean arduratzen den profesional bakoitzak jasotako ikastaro bakoitzeko, baldin eta ikastaro horiek zuzenean lotuta badaude emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin, eta gutxienez 20 orduko iraupena badute (2,5 puntutik 5 puntura, gehienez; betiere frogagiriak aurkezten badira). 150 ordu baino gehiagoko ikastaroei 5 puntu emango zaizkie.

Proiektua garatzeko erabilgarri jarriko diren baliabide teknikoaren deskribapen zehatza (guneak, ekipamenduak, softwarea eta abar), baliabideok egokiak diren ebaluatze aldera (10 puntu).

GUZTIZKO PARTZIALA

GUZTIRA (75 PUNTU, GEHIENEZ)

V. ERANSKINA.

DESKRIBAPEN-MEMORIA

BIZIALDI OSOKO IKASKUNTZA-JARDUERAK

PRESTAKUNTZA-JARDUERA ESPEZIFIKOAK

ERAKUNDE ESKATZAILEA
PROIEKTUAREN IZENA

Jardueraren hartzaileen kolektiboa

Prestakuntza-jardueren hartzaileen adina: amaierako memorian ikusten bada hasierako eskabidean adierazitakoaren % 20tik gorako desbideratzea dagoela, eskaeraren balorazioa berrikusiko da.

	Prestakuntza-jardueraren hartzaileak Bigarren Hezkuntzako graduatura iritsi ez diren 30 urtetik gorakoak dira.
	Prestakuntza-jardueraren hartzaileak 55 urtetik gorakoak dira.
	Jardueraren hartzaileen zerrenda aurkezten da, datuak sexuaren eta adinaren arabera bereizita.
	Testu mugatua

Bete nahi diren prestakuntza-beharrak.

	Beharrianak lotuta daude lanbide-kualifikazioa hobetzeko eta eguneratzeko prozesuetan txertatzeko behar diren oinarrizko gaitasunen defizitekin.
	Testu mugatua
	55 urtetik gorako kolektiboa: beharrak autonomia pertsonala hobetzeko gaitasunarekin, parte-hartze soziala eta boluntarioritza sustatzearekin, eta inguruko proiektu komunitarioekiko loturarekin lotuta daude.
	Testu mugatua

Lortu nahi diren helburuak

	Helburuak lanbide-kualifikazioa hobetzeko eta eguneratzeko prozesuetan sartzeko oinarrizko gaitasunak lortzeari dagokionez formulatuta daude.
	Testu mugatua
	55 urtetik gorako kolektiboa: helburuak autonomia pertsonala eta parte-hartze soziala hobetzeko trebakuntzari dagokionez formulatuta daude.
	Testu mugatua
	Helburuak bat datoz hartzaileen kualifikazioarekin eta prestakuntza-beharrekin.
	Testu mugatua

Prestakuntza-jardueraren programazioa eta edukia, metodologia eta egutegia

